

Amara Berri eskolan gaitasunetan oinarritutako sistema garatuz joan gara. Sistema honek ezarri dituen metodologia eta antolamendu egiturak, hezkuntza-komunitateko elementuen arteko harremanak eta lan egiteko modu berriak sortu ditu..

Gure hezkuntza proiektuaren muinean ikasleei buruz dugun kontzepzioa dago. Kontzepzio honek hiru elementu ditu oinarrian:

- Ikasle bakoitza izaki globaltzat hartzea.
- Ikasleek dituzten interesetatik abiatzea.
- Ikasle bakoitzak bere ezaugarri kontzeptualak eta emozionalak eta bere gaitasun indibiduala duela onartzea.

Ikasleei buruzko ikuskera honek diziplinarteko arloak era ezberdinean programatzera eta lantzera eramaten gaitu. Ikas jarduerak planifikatzerakoan gauzatzen ditugun ezaugarri metodologikoez gure nortasunaren adierazleak dira.

Lan-sistema ere bada, *diziplinarteko sistema*; sistema kontzeptuala; antolatzeko, planifikatzeko, gogoeta egiteko, aztertze eta erabakiak hartzeko sistema. Ez dago elementu isolaturik eta estatikorik, eta osotasuna ez da zatien batura; aitzitik, sortzen diren *harreman guztiak sartzen dira sisteman*.

Ez da amaitua dagoen zerbait. *Sistema irekia* esaten diogu, bizitza bera bezala, etengabe aldatzeko gai delako, sortzen diren elementu berriak barrutik txertatuz, sistema-antolamendua galdu gabe eta elkarrekintza berriak sortuz. Beraz, irakurketa Planak zeharkako trataera izango du.

Marko honetan, irakurketa plana ikastetxearen etengabeko hobekuntza bezala ulertzen dugu.

Gaur egungo irakurketaren kontzepzioarekin bat gatoz; irakurketa ezagutzarako, hausnarketarako, garapen pertsonalerako eta gizartean elkarrekintzan parte hartzeko aukera eskaintzen duen konpetentziazat hartzen dugu.

Hizkuntzak pentsamendua egituratzen du, eta gaur egun, irakurle konpetente izateko hainbat abilezia garatu behar direla ikusten dugu. Ikuspegi honek curriculumarekin lotura zuzena duten oinarrizko hainbat konpetentzia, batez ere pentsatzen ikasteko eta ikasten ikasteko, garatzea ahalbideratuko du.

Gure metodologian hizkuntzaren irakaskuntzari ikuspegi komunikatiboa ematen diogu, Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzako etapetan, eta hizkuntzaren dimentsio ezberdinak lantzen ditugu : ulermena, idazmena eta ahozko komunikazioa,

Gure jardueren bidez ematen diren ikasketa prozesu ezberdinak aztertzea eta hobekuntzak proposatzea izango dugu helburu.

Era berean, *Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua eta Hizkuntza proiektuaren ikuspegiarekin bat datoz Ikaskuntza esanguratsua, aniztasunari erantzuna, elkarrekin ikastea, zentzu kritikoaren garapena, autonomia ...* Beraz, irakurketa proiektua garatzerakoan berezitasun hauek kontuan izan behar ditugu.

FORMAKUNTZA

✓ *Hasierako formakuntza:*

- Berritzegunek eskaintzen duen formazioa:

Hizkuntzen arteko transferentzia gaitasuna.

Irakurketa Planaren ezaugarriak eta atalak.

Irakurmenarekin loturiko marko teorikoa.

Ikastetxeko talde eragilearekin koordinazioa. "Irakurgunea" web-aren azalpena

- Amara Berri Sareko aholkularitzak

Sareko ikastetxeetako talde eragileekin batera, gure metodologiarekin bat datorren Irakurketa Planaren izaeraren ikuspegia bateratu.

Proiektuko helburuak finkatu.

Irakurketa-jardueren gainean hausnarketa prozesua sustatu.

Jardueren prozedurak aberasteko hobekuntzak proposatu eta diseinatu.

Irakurketa esanguratsua lortzeko estrategiak aztertu eta partekatu. (*Eranskinak aurkezpenak , ideiak ...*)

✓ **Formakuntza jarraia :**

- Ikastetxeko talde eragilea.

Talde honek dinamizatzailer funtzioa izan behar du eta proposamenak bultzatzeko erronka izango du. Bestalde, irakurketa planaren izaera transbertsala denez, taldea mintegi ezberdinetako koordinatzaileek osatu beharko dute.

- Mintegi, ziklo edota etapa

Maila ezberdin hauetan ikas-jardueren hausnarketa egingo dugu: hobekuntzarako eremuak antzeman, hobekuntzak diseinatu, inplementatu eta ebaluatu. (*Eranskina : “Jarduerak ebaluatze-errubrika”*) gure praktika aberasten joateko.

DIAGNOSIA

- ✓ Diagnostika edota lehenengo hurbilketa egiteko asmotan, Irakurketaren inguruko indarrak eta ahuldadeak aztertu ditugu .

DAFO/ASMA:

Ahuleziak -Prestakuntza falta. -Irakasleen ezegonkortasuna. -Material egokien beharrak	Sendotasunak -Egiturak. -Metodologia. -Lan taldearen kultura. -Ikastetxeen Sarea.
Aukerak -Lan plana gauzatzearen beharra. -Ikastetxeen Sarea.	Mehatsuak -Euskarazko baliabide urriak. -Liburu zainen desagerpena. -Denbora . -Baliabide pertsonalen murrizketa.

- ✓ Zikloetan eta mintegietan, talde eragilearekin batera, irakurketaren trataera aztertu dugu; txantiloia erabili dugu (*1.eranskina*)
- ✓ 2018/19an irakurketa dela eta, ikastetxean hausnarketa eta diagnostikoa egiteak hainbat eremuren garrantziaz jabetzen lagundu digu :
 - Irakurketaren kontzepzioa aztertzen eta ikaste-irakaste prozesuetan egiten dugun trataeraren eta esku harmenaren kontzientzia hartzen.
 - Zeharkako trataera eta diziplinarteko alderdiaz jabetzen ere lagundu izan digu.
 - Irakurketaren trataera zikloka nahiko bateratuta dagoela, baina zikloen arteko koordinaketa hobetu daitekeela antzeman dugu.
 - Gure ezaugarri metodologikoen artean mediatekak betetzen duen funtzioa eta garrantzia azpimarratu dugu.
 - Zaletasunari dagokionez, mediatekako arduradunaren garrantzia azpimarratu dugu; batik bat tutoreekin batera egiten duen aholkularitza lana.
 - Irakurketaren eremuak aztertu ditugu eta orokorrean erdi eta goiko mailetan kokatzen garela ikusi dugu.

- ✓ Irakurketaren **jarduera ardatzetan**, honela *kokatzen* eta *definitzen* gara :

“Irakurtzen ikasi”

Haur Hezkuntzan irakurtzen ikastea helburua izan ez arren, irakurle izateko aurre baldintzak etapa honetan garatzen dira.

Ahozkoasuna garatzea aurre baldintza garrantzitsua denez, etapa honetan ahozkoak indar handia hartzen du.

Badira ere zenbait garapen kognitibo bereziki irakurketa prozesuekin lotuta daudenak, Haur Hezkuntzan lantzea ezinbestekoak direnak: lateralitatea, norabidea, erritmoa, espazioan kokapena, intonazioa, begi-esku koordinazioa, arreta ...

Kontzientzia fonologikoa. Ezinbestekoa da esparru hau ondo jorratzea irakurketa – idazketa prozesua era egokian garatzeko.

Ahozkoak ez ezik idatzizko testuak ere Haur hezkuntzan etengabe ageri dira, testu idatzi hauek baliabide gisa erabili behar dugu gure idatz sistemaz ikasleekin hausnarketa egiteko.

“Ikasteko irakurri”

Ikasketak ekinaren bitartez eta elkarrekintzan eraikitzen dira. Hau oso sustraituta dago gure sisteman, izan ere lanaren oinarri baitira harremanak, komunikazioa, testuinguru sozialak....

Hizkuntza komunikaziorako eta ikasteko tresna bihurtzen da, hau da, izaera instrumentala hartzen du; eta ikaskuntzaren muin eta tresna bilakatzen da aldi berean. Hortaz, gure lana hizkuntzaren alderdi formalean baino, honen alderdi funtzionalean kokatzen dugu.

Aipamen berezia merezi dute gure metodologian hain garrantzitsuak diren “Eskolako Mediateka “ ikaskuntzarako Errekurtso Zentroa da informazioa eta dokumentazioa bilatzen, aztertzen eta tratatzen ikasten baita eta “Eskolako Hedabideak”, geletan egiten diren lan askori irtenbidea ematen bait diete; hortaz, garrantzi handia dute ikaslearen motibazioan eta zentzua ematen dio ikasleak egiten duten lanari.

Ikasketa formaleko ekintzetan ahozko modua eta idatzizkoa elkar elikatzen dira. Hauetan, ahozko erregistroa idatzizkora hurbiltzen zaigu, eta era honetan, hizkuntza idatzia oso tresna lagungarri bilakatzen zaigu ahozko hizkuntza lantzeko.

Hizkuntzak pentsamendua egituratzen du. Horretarako konpetentzia-sistema eta tresna pedagogikoa ezberdinak garatzen joan beharko ditugu

“Irakur zaletasuna”

Ikasleengan irakur- zaletasuna sortarazteko eskolak, familien eta beste erakunde batzuen laguntza behar du. Badakigu gure jarrerak eta eskakizunak prozesua zeharo baldintzatuko duela: irakurtzera animatzean, motibatzean, jakin mina sortaraztean ... dago gakoa.

Gaur egungo neska- mutilak teknologia berrien aroan jaio direnez, gailu digitalak ere, irakur -zaletasuna bultzatzeko erabiliko ditugu, hau da, formatu ezberdinetan irakurtzera animatuko ditugu gure ikasleak.

Auzoko eta hiriko liburutegiekin, eta haur txokoekin ere, elkarlana sustatzearen garrantzia.

DENBORALIZAIOA

Printzipioz, bi ikasturteko epealdirako da eta gure ikastetxeko lanaren ardatz nagusi bat bihurtuko da; baina, aurreikusten dugu irakurketa, ikasturtez-ikasturte, hausnarketarako gaia izango dela eta hobekuntza planaren eremu bat izango dela. Irakurketaren ikuspegia, lan egituraketa eta hobekuntza proposamenak definitzen joango dira mintegi ezberdinetan

HELBURUAK

Irakurketa Plana eraginkorra ahalbideratzeko helburuak definituko ditugu gure Hezkuntza Proiektua eta gure praktikarekin bat egiten duena eta beti ere hobekuntza izaera izango duena.

Gure Irakurketa planaren helburua ikasleen irakurmena hobetzea da eta horretarako ekintza-jardueretan zehaztuko ditugu, elkarri eragiten baitute.

“Gure Irakurketa planaren helburu nagusia, ikasleengan irakurle konpetentzia areagotzea, irakurmen gaitasuna hobetzeko zerikusia duten abileziak eta irakurketan ematen diren pentsamendu mota ezberdinak garatuz; eta ikastetxean ere, irakurketa aldeko giroa eta kultura indartzea izango da.”

“Irakurtzen ikasi” ekintza ardatzaren helburuak:

- ✓ *Irakurtzen irakasteko erabiltzen dugun metodologiaren azterketa egin eta prozesuan eragina duten alderdien kontzientzia hartu. Haur Hezkuntzan hizkuntzaren garapenaren eta irakurketaren aurretikoen hausnarketa egin eta ondorioak jaso.*
- ✓ *Irakurtze prozesuan, oinarritzotzat jotzen ditugun hainbat alderdiren hausnarketa: aho hizkuntza, prozesu kognitiboak, adimen emozionala, garapen motorikoa, pentsamendu kultura, metalinguistika alderdiak (ruta fonologikoa...).. (2.Eranskina)*
- ✓ *LHn, aurreko etapan hasitako prozesua garatu eta finkatu. Gure metodologian, ikaskuntza diziplinartekotasunean eta egoera komunikatiboetan oinarritzen da. Irakurketa prozesua garatzeko testu mota ezberdinak eta ikasleentzako esanguratsuak diren testuak lantzen jarraituko dugu. Irakurketa prozesua garatzeko pentsamenduaren garapena ahalbideratzen dituen abilezia linguistikoak eta kognitiboak landuko dituen estrategiak eta jarduerak diseinatu eta inplementatu.*

“Ikasteko irakurri ” ekintza ardatzaren helburuak

- ✓ *Irakurketa pentsamendu-kultura ikuspegian eta trataeran oinarritu.*
- ✓ *Ikasketa garatzeko prozesu ezberdinak (Bloom taxonomia), irakurketaren faseak, adimen anitzak, pentsamendu kultura eta metakognizioaren inguruan hobekuntzak proposatu, diseinatu eta inplementatu.*
- ✓ *Departamentu (ikasgela) ezberdinetako testuinguruetan, irakurketa prozesuan eragina duten abilezia linguistikoak, kognitiboak, eta gramatikalak garatu.*

“Irakurzaletasuna” ekintza ardatzaren helburuak:

- ✓ *Eskolan, hainbat ekintza bideratu irakurketa ekintza erakargarria bihurtu dadin.*

- ✓ Departamentu ezberdinetan sentsibilizazioa eta sareak sortu.

JARDUERAK

Mintegika eta etapaka zehaztuko ditugu.

Jarduera bakoitzaren helburu, deskribapena, baliabideak, testuingurua, ekintza ardatza, denboralizazioa eta ebaluazioa txantiloietan jasoko dira.
(3.eranskina, ikasgelakoa, eta 4.eranskina etapakoa.

EBALUAZIOA

Departamentuetan, jardueren ebaluazioa errubrika baten bidez egingo dugu.
(5.Eranskina)

Egindako jardueren ebaluazioa egingo dugu: betetze maila , eraginkortasuna, alderdi positiboak eta hobetze proposamenak txantilo bat erabiliko dugu. (6.Eranskina)

ERANSKINAK

Eranskin 1

AMARA BERRI IKASTETXEKO DIAGNOSTIKOA

Talde eragile eta zuzendaritza taldea



	O MAILA	HASIERAKO MAILA	ERDIKO MAILA	MAILA AURRERATUA
IRAKURTZEN IKASI	Ikastetxean ez da hartu inolako erabaki adosturik irakurketa-idazketa prozesuari buruz.	Irakurketa-idazketa prozesua gauzatzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu	Irakurketa-idazketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin dira.	Adostuta dago era koordinatuan irakurketa-idazketa prozesuarekin erlazionatuta dagoena.
	Liburutegia ez da erabiltzen irakurketa-idazketa prozesua gauzatzeko jarduerarik.	Lantzean behin egiten dira liburutegian irakurketa-idazketa prozesua gauzatzeko jarduerarik.	Liburutegia sarritan erabiltzen da irakurketa-idazketa jarduerak gauzatzeko, baina ez modu sistematizatuan	Liburutegia irakurketa-idazketa prozesua garatzeko erabiltzen da, irakasleak koordinaturik
IKASTEKO IRAKURRI	Ikastetxean ez da hartu inolako erabakirik ikasteko irakurketari laguntzeko.	Ikasteko irakurketari laguntzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu	Ikasteko irakurketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin dira.	Arlo guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da ikasteko irakurketa.
	Liburutegia ez da erabiltzen aurrez programatutako ikasketa jarduerarik gauzatzeko.	Lantzean behin egiten dira liburutegian ikasketa jarduerak.	Liburutegia sarritan erabiltzen da ikasteko jarduerak gauzatzeko, baina modu ez sistematizatuan.	Liburutegia ikasteko jarduerak burutzeko erabiltzen da irakasleak koordinaturik.
IRAKURTZEKO ZALETASUNA	Ez da planteatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerarik.	Irakurzaletasunari laguntzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu	Irakurzaletasunari laguntzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin dira.	Arlo guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da irakurtzeko zaletasuna.
	Liburutegia ez da erabiltzen irakurzaletasuna garatzeko jarduerarik	Liburutegian noizean behin egiten dira irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerak	Liburutegia sarritan erabiltzen da irakurtzeko zaletasunari lotutako jarduerak garatzeko, baina modu ez sistematizatuan.	Liburutegia era sistematikoan eta irakasleak koordinaturik erabili ohi da.
FAMILIEN PARTE HARTZEA	Ez da familiekin inolako loturarik ezarri, irakurtzeko gaitasunari laguntzeko helburuz.	Noizik behin familiei informazioa helarazten zaie irakurtzeko gaitasunari laguntzeko.	Modu planifikatuan eskaintzen dira irakurtzeko gaitasunari lotutako orientabideak.	Familiei orientabideak, parte hartzeko aukera ematen zaie bai ikasgelan bai liburutegian antolatzen diren jardueretan.
INGURUAREKIKO LOTURA	Ez dira kontuan hartzen inguruak eskaintzen dituen aukerak irakurketa bultzatzen laguntzeko.	Noizik behin kontuan hartzen dira inguruak ematen dituen aukerak irakurtzeko gaitasunari laguntzeko.	Inguruan dauden erakundeek eskaintzen dituzten ekimen guztietan parte hartzeko ahalegina egiten da.	Inguruko jarduera eta ekimenetan parte hartzen da eta erakundeek ikastetxean parte hartzea ere bultzatzen da
PRESTAKUNTZA	Azken urteotan, klaustroak ez du irakurketaren inguruko prestakuntzarik jaso.	Zenbait irakasle oraintsu jaso dute irakurketaren inguruko prestakuntza.	Klaustrokide batzuek parte hartu dute irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.	Klaustroak parte hartu du irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.

AMARA BERRI IKASTETXEKO DIAGNOSTIKOA

Mintegia _____ Zikloa _____



	O MAILA	HASIERAKO MAILA	ERDIKO MAILA	MAILA AURRERATUA
IRAKURTZEN IKASI	Ikastetxean ez da hartu inolako erabaki adosturik irakurketa-idazketa prozesuari buruz.	Irakurketa-idazketa prozesua gauzatzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu	Irakurketa- idazketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin dira.	Adostuta dago era koordinatuan irakurketa-idazketa prozesuarekin erlazionatuta dagoena.
	Liburutegia ez da erabiltzen irakurketa-idazketa prozesua gauzatzeko jarduerarik.	Lantzean behin egiten dira liburutegian irakurketa-idazketa prozesua gauzatzeko jarduerarik.	Liburutegia sarritan erabiltzen da irakurketa-idazketa jarduerak gauzatzeko, baina ez modu sistematizatuan	Liburutegia irakurketa-idazketa prozesua garatzeko erabiltzen da, irakasleak koordinaturik
IKASTEKO IRAKURRI	Ikastetxean ez da hartu inolako erabakirik ikasteko irakurketari laguntzeko.	Ikasteko irakurketari laguntzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu	Ikasteko irakurketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin dira.	Arlo guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da ikasteko irakurketa.
	Liburutegia ez da erabiltzen sarez programatutako ikasketa jarduerarik gauzatzeko.	Lantzean behin egiten dira liburutegian ikasketa jarduerak.	Liburutegia sarritan erabiltzen da ikasteko jarduerak gauzatzeko, baina modu ez sistematizatuan.	Liburutegia ikasteko jarduerak burutzeko erabiltzen da irakasleak koordinaturik.
IRAKURTZEKO ZALETASUNA	Ez da planteatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerarik.	Irakurzaletasunari laguntzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu	Irakurzaletasunari laguntzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin dira.	Arlo guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da irakurtzeko zaletasuna.
	Liburutegia ez da erabiltzen irakurzaletasuna garatzeko jarduerarik	Liburutegian noizean behin egiten dira irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerak	Liburutegia sarritan erabiltzen da irakurtzeko zaletasunari lotutako jarduerak garatzeko, baina modu ez sistematizatuan.	Liburutegia era sistematikoan eta irakasleak koordinaturik erabili ohi da.
FAMILIEN PARTE HARTZEA	Ez da familiekin inolako loturarik ezarri, irakurtzeko gaitasunari laguntzeko helburuz.	Noizik behin familiei informazioa helarazten zaie irakurtzeko gaitasunari laguntzeko.	Modu planifikatuan eskaintzen dira irakurtzeko gaitasunari lotutako orientabideak.	Familiei orientabideak, parte hartzeko aukera ematen zaie bai ikasgelan bai liburutegian antolatzen diren jardueretan.
INGURUAREKOKO LOTURA	Ez dira kontuan hartzen inguruak eskaintzen dituen aukerak irakurketa bultzatzen laguntzeko.	Noizik behin kontuan hartzen dira inguruak ematen dituen aukerak irakurtzeko gaitasunari laguntzeko.	Inguruan dauden erakundeek eskaintzen dituzten ekimen guztietan parte hartzeko ahalegina egiten da.	Inguruko jardura eta ekimenetan parte hartzen da eta erakundeek ikastetxean parte hartzea ere bultzatzen da
PRESTAKUNTZA	Azken urteotan, klustroak ez du irakurketaren inguruko prestakuntzarik jaso.	Zenbait irakasleak oraintsu jaso dute irakurketaren inguruko prestakuntza.	Klaustrokide batzuek parte hartu dute irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.	Klaustroak parte hartu du irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.

IRAKURKETA PLANA H.H.

	AHOZKOTASUNA	GARAPEN KOGNITIBO, EMOZIONALA, MOTORIKOA... (PENTSAMENDU KULTURA)	KONTZIENTZIA FONOLOGIKOA, ARIKETA METALINGUISTIKOAK....
SAIO KOLEKTIBOAK (1,2,3 ETA 4) KONTESTUAK (ETXEA, PLASTIKA, ANTZOKIA, ...) PATIOA PSIKO GELA/ BIDEOA....			

JARDUERA , denbormalizazioa , inplementazioa eta ebaluazioa

DEPARTAMENDUA:	Zikloa:
-----------------------	----------------

JARDUERA (Helburua, deskribapena eta baliabideak)	KOLEKTIBA / KONTESTUA(K)	IP EREMUA 1- 2- 3	IKASTURTEA 2018/19 2019/20	EBALUAZIOA
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐

(1) Irakurtzen ikasi, (2)Ikasteko irakurri (3)Irakur zaletasuna

JARDUERA , denbormalizazioa , implementazioa eta ebaluazioa

DEPARTAMENDUA: **HITZ LAPIKOA**

Zikloa: **1.**

JARDUERA (Helburua, deskribapena eta baliabideak)	KOLEKTIBA / KONTESTUA(K)	IP EREMUA 1- 2- 3	IKASTURTEA 2018/19 2019/20	EBALUAZIOA
<u>HELBURUA:</u> <i>Irakurketa mekanikoaren lanketarako audio soportek , irakurketa monitorizatu eta modelajea errazteko.</i> <u>JARDUERA</u> Testotekako testuen audioak ekoiztu eta sortutako QRak testuetan kokatu . <u>BALIABIDEAK</u> QRak	Hitzaldian	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
<u>HELBURUA:</u> <i>Aurrezagutzen lanketa, ulermena ahalbideratzeko.</i> <u>JARDUERA</u> Testotekako testuetarako bideoak aukeratu, QRak sortu eta testuetan itsatsi. <u>BALIABIDEAK</u> Bideo egokiak (You touben,...)eta QRak	Hitzaldian	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
<u>HELBURUA:</u> <i>Ikasleen irakurketa mekanikoaren jasoketa ikasleen porfolirako eta beraien irakurketa prozesuaren metakognizioa ahalbideratzeko.</i> <u>JARDUERA</u> Ikasleek sortutako testoen irakurketaren audioa sortu, hedabideetara doazenean; QRa beraien lanean eta erregistro orrian itsatsi; kurtsoaren bukaeran errubrikaren bitartez ebaluatu. <u>BALIABIDEAK</u> QRak , QRen jasoketarako erregistro orria eta errubrikak .	Sail Literarioan Ipuin Sormenean Hitzaldian	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐

(1) Irakurtzen ikasi, (2)Ikasteko irakurri (3)Irakur zaletasuna

JARDUERA , denbormalizazioa , implementazioa eta ebaluazioa

DEPARTAMENDUA:

HITZ ETA PITZZikloa: **2**

JARDUERA (Helburua, deskribapena eta baliabideak)	KOLEKTIBA / KONTESTUA(K)	IP EREMUA 1- 2- 3	IKASTURTEA 2018/19 2019/20	EBALUAZIOA
<u>HELBURUA:</u> Ikasleen irakurketa mekanikoaren jasoketa ikasleen porfolirako eta beraien irakurketa prozesuaren metakognizioa ahalbideratzeko. <u>JARDUERA</u> Ikasleek sortutako lanen irakurketaren audioa sortu, hedabideetan eta QRa beraien lanean eta erregistro orrian itsatsi; kurtsoaren bukaeran errubrikaren bitartez ebaluatu <u>BALIABIDEAK</u> QRak , QRen jasoketarako erregistro orria eta errubrikak .	Sail Literarioan Hitzaldian	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
<u>HELBURUA:</u> Aurrezagutzen lanketa , ulermena ahalbideratzeko. <u>JARDUERA</u> Testotekako testuetarako bideoak aukeratu, QRak sortu eta testuetan itsatsi . <u>BALIABIDEAK</u> Bideo egokiak (You touben,...)eta QRak	Hitzaldian	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
<u>HELBURUA:</u> Testuen aukeratzen dutenean hausnarketa egitea , pentsaraztea eta zergatiak argudiatzea, prozesuetaz jabetzen joateko. <u>JARDUERA</u> Testuen arteko konparaketa eta aukeraketa prozesuan hausnarketa egitea eta erabakiaren zergatiak arrazonatzea . <u>BALIABIDEAK</u> Pentsamendu errutina “alderatu eta kontrastatu”.	Hitzaldian	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
<u>HELBURUA</u> Ideen antolaketa , ulermenaren bisualizaziorako eta ahozko adierazpenean laguntzeko. <u>JARDUERA</u> Testua Mapa Mentalaren bidez adieraztea. <u>BALIABIDEA</u> Mapa mentala, antolatzaile bisualak...	Hitzaldian	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐

JARDUERAk , denbormalizazioa , inplementazioa eta ebaluazioa

DEPARTAMENDUA:

PRENTSA

Zikloa: **1.ZIKLOA**

JARDUERA (Helburua, deskribapena eta baliabideak)	KOLEKTIBA / KONTESTUA(K)	IP EREMUA 1- 2- 3	IKASTURTEA 2018/19 2019/20	EBALUAZIOA
<u>HELBURUA</u> Irakurketa mekanikoa lantzeko eta ulermena ahalbideratzeko problema idatziak audio soportetan eskaini. <u>JARDUERA</u> Idatzizko problemei, audioak atxikitzea, QR baten bitartez. <u>BALIABIDEA</u> Problema idatziak ,QRak eta tableta.	Problemak	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
<u>HELBURUA</u> Ulermena ahalbideratzeko, idatzi -entzunezko problemen emaitzak nola lortu duten adieraztea (idatziz , grafikoki,...) zifra txikiko problema idatziak audio soportean eskaini . <u>JARDUERA</u> Zifra txikiko problema idatziei audioa itsatsi. Emaitza zuzena eskatu (buruz eta idatziz) Ondoren, prozedura, idatziz edo grafikoz adieraztea. Ekintzak /aditzak fosforitoz azpimarratu. Eta azkenik, prozedura adierazpen matematikoan adierazi. <u>BALIABIDEA</u> Problema idatziak , QRak , tableta, txantiloia(*)	Problemak	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
<u>HELBURUA</u> Ulermena ahalbideratzeko, problema idatzien planteamentua antzeztea eta ebaztea. (Emandakoak edo ikasleek asmatutakoak, euskarri batzuk eskaini diezaizkiegu.) <u>JARDUERA</u> Binaka problema idatziak antzeztea eta ebaztea . <u>BALIABIDEA</u> Problema idatziak, txantiloia, euskarriak (objetuak, taula aukerak – dado, Hedabideak (Telebista)	Problemak	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐

JARDUERA , denbormalizazioa , inplementazioa eta ebaluazioa

DEPARTAMENDUA: **BURU BELARRI**

Zikloa:LH3.

JARDUERA (Helburua, deskribapena eta baliabideak)	KOLEKTIBA / KONTESTUA(K)	IP EREMUA 1- 2- 3	IKASTURTE A 2018/19 2019/20	EBALUAZIOA
- Kontestuetan material manipulatio gehiago sartu, abstrakzioa, ulermena edota pentsamendu matematikoa garatzen laguntzeko .	Guztietan	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
- Erronka matematikoen proposamenak aberastea.	“Problemak “	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
- Pentsamendu errutinak, mapa mentalak eta antolatzaile grafikoak erabilera sistematikoa.	“Nire errekorra”	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
-Irakurketa konpartitua , kontestuetako hainbat jardueretarako.	“Problemetan” “ Nire errekorra”	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐

(1) Irakurtzen ikasi, (2)Ikasteko irakurri (3)Irakur zaletasuna

JARDUERAk , denbormalizazioa , inplementazioa eta ebaluazioa

DEPARTAMENDUA:	MUSIKA	Zikloa:1.,2.eta 3.
----------------	---------------	--------------------

JARDUERA (Helburua, deskribapena eta baliabideak)	KOLEKTIBA / KONTESTUA(K)	IP EREMUA 1- 2- 3	IKASTURTEA 2018/19 2019/20	EBALUAZIOA
-Karaokea baliabide bezala erabiltzea, musika eta irakurketa uztartuz.		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
-Abestiak lantzean, abestiaren ulermenari garrantzia eman, ikus-euskarria erabiliz.		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
- Musikako liburuen aurkezpenak musika saioetan. Musika entzunaldien ondoren konpositorearen obra eta bizitzari buruzko liburu baten aurkezpena egin. Liburu hauek maileguan hartzeko aukera eman.		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
- Musika arloko liburu zerrenda egokia jaso mediatekarako.		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
- Gabon kanta k, QRen bidez irakurri eta entzun .		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐

(1) Irakurtzen ikasi, (2)Ikasteko irakurri (3)Irakur zaletasuna

JARDUERA , denbormalizazioa , inplementazioa eta ebaluazioa

DEPARTAMENDUA:	MUSIKA	Zikloa:1.,2.eta 3.
----------------	--------	--------------------

JARDUERA (Helburua, deskribapena eta baliabideak)	KOLEKTIBA / KONTESTUA(K)	IP EREMUA 1- 2- 3	IKASTURTEA 2018/19 2019/20	EBALUAZIOA
- “Familiekin abestea” horretarako, hilabetero ikasitako abestia, idatziz ematea dagokion audioarekin (QRa). Ikastetxeko aldizkarian musika arloari atal bat eskainiko zaio.		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
- Musikako geletan. Hiri eta auzoko agenda kulturalari espazio bat egokitu, eskaintza ezagutu dezaten eta, bide batez, irakurtzeko aukera zabaldu.		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
		1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐

(1) Irakurtzen ikasi, (2)Ikasteko irakurri (3)Irakur zaletasuna


Jarduerak , denboralizazioa , inplementazioa eta ebaluazioa

ETAPA: (ESKOLA INGURUNEAN)

JARDUERA (Helburua, deskribapena eta baliabideak)	IP EREMUA 1- 2- 3	IKASTURTE A 2018/19 2019/20	EBALUAZIOA
	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐
	1 - 2 - 3	2018/19 2019/20	☐

(1) Irakurtzen ikasi, (2)Ikasteko irakurri (3)Irakur zaletasuna

ERRUBRIKA (Ikasle eta irakasleentzat)

JARDUERA EDO TRESNA:		
Jarduera edo tresnaren AURKEZPENA (DEMO)		
PROZEDURA ulertu da.		
AUTONOMIA ahalbideratzen du .		
METAKOGNIZIOA, zertarako eta zer ikasten den jabetzen naiz.		
IMPLEMENTAZIOA erraza izan da.		
SISTEMATIZATU dut.		
OROKORTU dut.(Beharren arabera erabiltzen dut.)		

BALORAPENA

Irakurketa Plana

Amara Berri Sarea

BURUTUTAKO JARDUEREN EBALUAZIOA

	BETETZE-MAILA	ERAGINKORTASUNA	ALDERDI POSITIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Irakurketa Planaren koordinatzailea izendatu eta bilera-egutegia zehaztu Amara Berri Sare mailan.				
Irakurketa Planaren koordinatzailea eta talde eragilea Sare eta Berritzeguneko jardueretan parte hartu.				
Irakurketaren kontzepzioa, formazioa eta gure irakurketa planaren ildoak adostea eta zehaztea.				
Departamentuka eta zikloka irakurketaren inguruan hausnarketa egin eta hobekuntza jarduerak proposatzea eta zehaztea.				
Diseinatutako jarduerak departamentuan inplementatzea.				
Irakurketa-jardueren emaitzak ebaluatu eta irakurtzeko konpetentzia hobetzeko izan duten eragina aztertu.				

ERREKURTSOAK

❖ LOTURAK:

<https://irakurgune.euskadi.eus/eu>

<https://sites.google.com/site/aprenderaleeryescribir/home>

<https://www.galtzagorri.eus/euskara/haur-eta-gazte-literatura>

❖ BIBLIOGRAFIA:

- PERKINS, D., TISHMAN, S., JAY, E. *Un aula para pensar: Aprender y enseñar en una cultura del pensamiento*. Buenos Aires. Aique, 1998
- ROBERT J, SWARTZ , ARTHUR L. CUESTA,... *El aprendizaje basado en el pensamiento, como desarrollar en los alumnos las competencias del siglo XXI* SM, 2016
- ROBERT SWARTZ , *Pensar para aprender*, SM 2019
- CALERO, A. *Comprensión lectora. Estrategias que desarrollan lectores autorregulados*. Comprensión- lectora.org, 2017.
- GARCÍA PÉREZ, J.R., ROSALES PARDO, J. eta SÁNCHEZ MIGUEL, E., *La lectura en el aula. Qué se hace, qué se debe hacer y qué se puede hacer*. Bartzelona: Grao, 2010
- SOLÉ, I. *Estrategias de lectura*. Bartzelona: Grao, 1998
- RIPOLL, J.C. eta AGUADO, G. *Enseñar a leer. Cómo hacer lectores competentes*. Madril: EOS, 2015

❖ **HOBKUNTZA ILDOAK**

DEPARTAMENTU GUZTIENTZAT (OROKORRAK) :

- Aurrezagutzak aktibatzeke eta irakurketa modelatzeko (audio testuak, audio liburuak, ikus-entzunezko baliabideak,...QRak sortuz)
- Ikasleen portfolioan irakurketen jasoketa (QRen bitartez)
- *Pentsamendu motak*
- *Pentsamendu errutinak.*
- *Pentsamendu abileziak (Mapa mentalak, Antolatzaile grafikoak , metakognizio inguruan errubrikak...)*
- *Adierazpen mota ezberdinak (ahozkoa, grafikoa, kinestetikoa, idatzizkoa, ...)*
Adimen anitzak.
- *Galdera mota ezberdinak (literal, inferentzial eta kritikoak)*
- Lan metodoen egokitzapenak: jardueren prozeduretan hobekuntzak ezarri.
- ...